

1992ko martxoak 12.

Aretxagazeta



Kurtzebarritik Everestera

• *Elkarrizketa:
Oxigeno barik
Everestera*

• *Ihauteriako
argazkiak*

• *Aretxagazeta
elkartea sortu*



JAIO berri bat mundu-ratzean beti sortzen da bere inguruan ikusmina eta zerbait ésan beharra. Zer esan ez dakitenentzat irtenbide erosoia izaten da gurasoen aurrean esatea aitaren edo amandarearen antza daukala. Gure

“Proiektu berri eta txukun bati ekin nahi diogu. Konparazioetan jausi barik”

Ez dauka amaren antzik...!

jaioberriarekin kotxetxo eta guzti paseatzen lehenbizikoz hasten garenean inork ez digu esango gurasoen antza duenik. Pisu gutxikoa, izen bera zuen bere amarengandik zeharo diferentea, eta Arrasateko aitaren aierik ez...um, pentsatuko du norbaitek beste norbait ibili ote den olerkerietan.

Metaforak utzita. Aldizkari berri batek argia ikusten duenean, jakinmina zabaltzen da irakurle gaien artean. Gure kasuan ez da gutxiago izango, desagertu-

tako baten aro berriari atea irekitzen bait zaio. Atxabaltar asko dago ohituta astero Arrasate Press etxean jasotzen, eta «hau da huskeria» esango zuen, beharbada, ikusteaz bat: orrialde gutxiago, formatoz txikiagoa, eta hamabostean behin? Bai, guzti hori. Izan ere, ez dugu errepikapenik egin nahi izan, benetako posibilitateetatik abiatu eta proiektu berri eta txukun bati ekin nahi diogu.

Konparazioetan jausi barik. Sail honetako kolaborat-


zaile sorta zabala izango da oso, idatzi nahi duen edozein hartzeko bezain zabala. Herriaz, eguraldiaz, arazoetaz, eztabaidetaz, erlijioaz, kulturaz... denetik idatziko da ‘letrauen» sail honetan. Hori bai, txandaka. Letrauk denok gara, eta euskaraz irakurtzeko ohitura faltaz, oraindik ez dena, laster hartaratuko da. Laguntzeko parez-pare eta irakurle izateko zer esanik ez, zabalik dituzu Aretxagazetaren orrialdeak. Luza-roan, espero.

Arantzazu Loidi. Kazetaria

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa:79 01 05 151 postakutxatila **Zuzendaria:** Jokin Antxia **Erredakzio- Kontseilua:** Jon Sarasua, Ima Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julien Zuazaberita, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop. **E. Tirada: 2.500 ale** Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da.

Zer daukazu esateko?



**Josu Lazkano
(Langabezian)**

Udalak kultur eta kirol taldeekin dituen harremanak ez dira behar diren modukoak. Diru aldetik ematen diren laguntzak oso eskaxak dira. Horrela ezin da lanik gustora egin.




**Mentxu Madinabeitia
(Langilea)**

Ez dut ulertzen industria-erakundearen eraiki duten herri erdian, Herritik kanpora lekua egonda. Industria aldea dagoen lekuan; etxeak, parkeak eta abar eraiki daitezke.



**June Tome
(Ikaslea)**

Aurtengo ihauteriak oso ondo eta animatuak egon dira. Baina haurrentzat ez da gauza handirik egon, txarangak nahiko txarrak ziren.



**Jose Antonio Zangitu
(Langilea)**

Joan zen urtean eskolarteko kirolean basteante gauza egin ziren. baina aurten zergaitik ez dute egiten? edo nork egin behar du? Nik uste dut eskolarteko kirolean betikoak dabiltzala, gurasoak gehiago mugitu beharko lirateke.

KARTAK

Kanariasetik

Eskerrikasko nirekin gogoratu zaretelako eta gorantziak Aretxabaletar guztioi. Aretxabaletan aldizkari bat sortu delako oso pozik nago eta aretxabaletar guztioi esaten dizuet, Aretxabaletan sortzen den gauza guztiari lagundu behar diogula eta itxaropen guztiaz.

(Bazkide egiteko Kanariasetik bidali zuen gutunaren zatia)

Benito Gaztañaga

Atxabaltarren laguntzari eskerrak

Aretxabaleta-Unai Proiektua aurrera atarteko laguntza ekonomikoa ematen zabilzatenoi, eskerrik asko. Zuei denoi esker Indiako Unai eskualdean lanak martxandaude: eskolaurreak eta lurraren prestaketa arrosa ereiteko. Gosea eta zapalketa urrunago daude.

Denera 1.350.000 peze-ta bildu dira 1991n. Ho-

rrekin 10 andereño ari dira eskola erakusten, eta 100dik gora langile dabituz lanean gure proiektuan. Hala ere, 16 miloiko proiektu osoa aurrera eramateko asko falta da oraindik. Ea portetan garen atxabaltarrok. Ez da karidadea bakarrik. Justizia da.

Oraindik laguntzarik eman ez duzuenoi ere jakinarazi gura dizuegu proiektua aurrera doala. Gure aberastasuna herrialde pobreen esplotazioan oinarrituta dagoela aitortzea ez da na-

hikoa. Ekintzetara pasatu behar da. Laguntza horri bideak zabaltzeko sortu da gure taldea. Izango duzue gure barri.

Hirugarren Mundu Taldea.

Kartak bialdu gura badituzue, zuzendu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

IHAUTERIAK



Aurtengo txinoak Lazkanoren zuzendaritzapean. Herriko komentarioa zera izan zen: Aurtan kantzontzilo garbiak ikusi zirela. Hola jarraitu!



Kuixak esplotetan ibili ziren elementuak. Ederrak granjeroak. Non dago Amilotx?



Xoxueneko Maritrini. Patiniak eta Martini. Protesisak ondo ipini.



Hemen txapeldunak. Aretxabaletako "beautiful people" -aren modakoak. Eskaparatean isladatuta, agureak gustora begira.



Aretxagazetako zuzendaria. Bazkideen kuoten kontura majo gizendu da.



Aretxagazeta elkartearen batzar fundazionala

Joan zen Otsailak 15ean elkarte barri bat osatu zen herrian: Aretxagazeta Elkarteá. Zaraia zineman egindako batzarrean osatu zen eskuartean duzun aldizkari hau atátaraten duenelkarta. Ahalik eta bazkide gehienekin osatutako elkarteá izatea da planteamentua. Elkarte

zabal horrek ateratzen du eskuartean duzun aldizkaria. Aurtengo urterako Zuzendaritza Batzordea, estatutuak eta aurrekontuak onartu ziren lehen batzar horretan.

Jokin Antxia izendatu zen lehendakari. Une honetan 200 bat bazkidek osatzen du elkarteá.

Hirukiak Apotzan

Zapatuan goizeko 10,30ak aldera, zesarea baten ondoren Apotzan hirukiak jaio ziren. Gauzak aguro eta ondo atera ziren, medikua eta matrona talde handi batek zuzendu zuen operazioa. Maribel Bengoetxea eta Jesus Zubizarretaren semeak: Joseba, 2950gr, Ander, Enekoedo Igor (erabaki berik), 2650gr eta Mikel, 2050gr. Bigarren semearen izena dudan dute, Ander, Igor edo Eneko ipini, oraindik pentsatzen ari dira. Osasunez ondo daude, nahiz eta Mikel oraindik inkubadoran egon, hasieran arnasa hartzeko arazo txiki batzuk izan zituelako. Orainondo dago baina pisu egokia hartu arte barruan jarraituko du.

• Bedarretako etxebizitza barriak egingo dira laster. Bedarretako 5-C zonaldean etxebizitza kooperatiba sortu da honetarako. Berehala hasiko ei dira etxeak eraikitzen.

• Almen ikastolako historiari buruzko liburua argitaratu da, Almenen 25. urteurreneko ospakizunen barruan. Gaur egin da bere aurkezpena Almenen. Adi egon lortzeko.

UDALETIK

Kanposantua

Udalak kanposantuan 16 nitxo eta 8hezurtegi txiki egin ditu. Lurpean leku gehiago ez dagoelako eta kanposantu barria egin bitartean. Nitxoak debalde izango dira, baina ez da ezelako jabego eskubiderik sortuko. Hezurtegitxikiak alokatzea 3,000 pzta. kostako da urtean eta nitxoekin batera 10 urterako izango dira. Kanposantu barria legealdi honetan egingo da.

Erreka garbiketa

Bolumen haundiko zarramarrak kendu dira Deba errekatik. Orain erreka beste itxura bat dauka. Ea luzerako den.

Diru biltzailea

Dirubiltzaile bat izendatu du Udalak, azken Plenoan. Udalarekiko zorrak kobratuko ditu. Moroso gaixoak.

"Taxutu"

Gure herriko langabeziari buruzko azterketa sakon bat egin dezan "Taxutu" izeneko enpresa kontratatu du Udalak. Hiru hilabetean egingo du lan hau. Gero "lan-poltsa" izeneko bat sortuko da, bai langabetu bai enpresek jakin dezaten herrian dauzkagun beharrak eta "lehen-gaiak" zeintzuk diren.

Enpresa Katalogoa

Aretxabaleto enpresen katalogoa egiteko langile bat kontratatu du Udalak. Pertsona hau Diputazioaren laguntzarekin egingo diren kontratazioen barruan hartu da, sei hilabeterako.

Harrituta geratu gara atxabaltarrok: Inurra-tegi anaiak aurten Everestera doazela. Everestera eta oxigeno barik, Eskoriatzako Joserra Zubizarretarekin batera. Oraindio esponsorarekin tratuan badabiltz ere elkarrizketa eman digute bi anaiok. Horra gure eskusiba.



- **Galdera:** Zela sartu zineten afizio honetan?
- **Alberto:** Bueno etapa desberdinak daude. Pirineoetatik Alpetetara, handik Josemitera eta Jo-

"Everesteko desafioa oxigeno faltan dago"

semiten erabaki genuen hurrengo urteetan ere abioia hartuko genuela.

• **Galdera:** Baina zuek lehenengo eskaladan ibili zineten fuerte...

• **Felix:** Normalena izaten da aldrebes egitea. Lehenengo mendia, gero eskalada eta azkenik eskalada deportibora. Guk kontrakoa egin dugu. Eskalada deportibotik horma haundira eta gero mendira. Zergatik? Apur bat kasualidadez. Himalayara 1990an joatea ere kasualidadez izan zen. Perura joateak hutsegin zigulako.

• **Alberto:** Ni Pirineotara lehenengo aldiz hamazortzi urterekin joan nintzen. Kontuak atara.

• **F:** Mendirako asko ikasi dugu eskaladan. Soluzio eta forma batzuk ikasi ditugu, gero mendian aplikatzeko. Ohartu gara Himalayan beste batzuk ikusten ez dituzten soluzio batzuk guk ikusten ditugula. Bai teknika aldetik, bai psikologia aldetik.

• **Zuen progresioa ez da normala, ez? Eskaladan ibili eta bi urtetara zortzimilakoa egin.**

• **A:** Progresioa igual ez da

normala. Baina euki dugun suertea ere ez da normala. Suerte haundia eduki dugu. Himalayara bi urteetan joan eta bietan gailurra.

• **Ze fama daukazue beste mendizaleen artean?**

• **A:** Hasieran jendeak zortzat hartu gintuen. Hartzen gaituzte bixkor bezala, baina helburua lortzeko kapaz ez bagina bezala. Horrek asko motibatzen gaitu.

• **F:** Adibidez, akordetan naiz, Pumorin biok erre-bentatuta geundela eta niri bajoia eman zidan, ia uzteko nengoen. Anaiak esan zidan: " Akordau hadi Atxabaltan igo behar ez duala esan deustien danakin!!!".

• **Eta gora.**

• **F:** Eta gora klaro.

• **Everesta izan liteke etapa baten bukaera?**

• **F:** Bai. Altura probatzearen etaparen bukaera da. Gero, beste etapa batzuk egon daitezke, adibidez alturan eskalatzea...

• **Ze posibilitate dituzue benetan Everest gailurra zapaltzeko?**

• **A:** Everesten historia ikusi ezkerro badakizu %90 probabilitateak dituzula ez igoteko. Edo gehiago, gure planteamentuekin, oxigeno barik, bi lagun... oso gatxa da. Baina bueno, Makalun 8.481 metro tara egon gara eta hortik Everestera 400 metro daude. Egun on bat eduki ezkerro, igo liteke oxigeno barik. Apustua egitea da.

• **Zergatik oxigeno ba-**

Gure progresioa igual ez da normala. Baina euki dugun suertea ere ez da normala.

rik?

• **F:** Etika kontua da.
 • **A:** Demostratuta dago oxigeno barik igo daitekeela. Everesten zailtasuna hor dago, alturan. Ez dauka teknikoki beste munduko zerik. Desafioa oxigeno faltan dago.

• **Fama daukazue ez zaretela errezibimendu eta agertzearen zaleak.**

• **F:** Guknahiko diru edukiko bagenu, lagunak bakarrik enteratuko ziren Everestera nindoala. Nik nire gauzak egingo nituzke eta hor konpon Marianon. Pasetan dana da zenbait laguntza ditugula eta kontuak eman behar direla. Folklorearen egitea pasatu beharreko zulo bat da. Baina ez gara folklorezaleak.

• **Edozela ere Everest igotea Euskal Herri mailarako ere inportantea da.**

• **A:** Kontutan eduki Martin Zabaletak orain dela 12 urte igo zuela. Geroztik ia urtero egon dira saioak eta ez dute igo euskaldunek. Orduan, guk igotea eta oxigeno barik, inportantea izango litzateke.

• **Kompetentzia eta inbidia haundia dago eliteko mendizaleen artean?**

• **F:** Bai, pasada bat. Gainera Euskal Herriko Himalayismoa bigarren dibisiokoa da, edo preferentekoa. Euskal Herrikin orain gutxi joan da Himalayara gauza barriak egitera. Eta gainera gure

arteko kompetentzia hazurretaraino sartuta daukate.

• **Alde horretatik, zela ikusten dituzue Azpeitiko bezalako montajeak, diru publikoekin?**

• **F:** Himalayara joatea ez da samurra. Eta hik oso etika finak edukiko dituk baina joan gura baduk, oso gustokoak ez diren bidetatik joan behar askotan. Eta dagoena hartzen da. Eta udaletxeak dirua ematen badizu azpeitiarrei bezala, ba hartu (guri ere eman digu). Dena dela denok antzerako eskemekin ibiltzen gara. Kolgatuagoak, komodoagoak, baina denok kategoria berekoak.

• **Everest ala Sagarmatha?**

• **F:** Sagarmatha (Nepalera duen izena) gehiagorik gustatu arren, Everest gehiago saltzen da. Eta apur bat prostituta lana egin behar. Logotipoa Sagarmatharen hasierako S-arekin eginda dago behintzat.

• **Goazen herrira. Zer ematen dizue Murruxok eta zuek zer Murruxori?**

• **A:** Guk Murruxori? Burukomina galanta. Bueno eta gureak badauka pisu bat, saltsa apur bat jartzen du.

Murruxok guri? Bakarrik ez gauden sentiazioa. Hor egon da beti lokala, makina, telefonoa, jendea laguntzeko prest. Eta azken espedizioan Madrildik Bilborako



abioi biletea.

• **F:** Batez be apoio moral. Eta eskertzen da.

• **Ze entrenamendu egiten duzue?**

• **F:** Bakoitzaren sufrirentu kapazitatearen arabera. Orain arte nahiko anarko. Gaur da eguna jende adituarekin programa bat egin duguna, segmentu zehatz bat egiteko. Iruñeko entrenadore batekin gabiltz harremanetan.

• **A:** Edozein modutan igual hemen sekulako entrenamenduak egin eta gero han txarto zaude. Eta alderantziz. Entrenamenduaren emaitza ez da proportzionala.

• **Felix, zela dago zure behatetako konjela-**

zioen arazoa?

• **F:** Nire egoera nahiko gordin dago. Hankakoa konplikatu egin zen eta oraindik ez naiz hasi bizikletan ere. Eskukoa itxuran gelditu da. Beste kezka bat badaukagu: hatzamar batzuk hotzitu egin zitzaizkigun eta orain hotzarekiko hipersensibilidade bat daukate. Ikusiko dugu udan hobetzen diren.

• **Zelako harrera eduki gura duzue bueltarako?**

• **A:** Segun zela ibiltzen garen. Folklore gutxi. Gu mendian ibiltzen gara ondo, teatroan kaskarrak gara.

Oharra: Espedizio honen datu teknikoak, hurrengo zenbaki batean eskainiko ditu Aretxagazetak.

KONTU ZAHARRAK



) Juan Axpe, Angel Arrese, Pepe Urtubi, Elias Otero, Pedro Elorza, Paul Zuazabeitia, Floren Elorza, Joxe Olabe Paulo zuazabeitia eta Karmelo Olabe. (Makurtuta): Santi Bengoa, Karmelo Igartua, Rufino Peña, Juanito Urreta, Bixente Otxoa eta Migel San Juan.

Aretxagazetaren berragerpena dela eta, aldizkariaren atal hau jaiguroan hasi gura dugu. Begibistan dagoenez, argazkia ez da haratuzte sasoikoa; hemen hain

ederrak azaltzen diren atxabaltarrak ez zeuden garizumaren atarian, ez. Dakigunez, norbaiten "despedidie" ospatzen zebiltzan eta, bazkari bapoa egin eta gero,

kamararen aurrean ditugu paperean agertzeko prest. Ospakizuna 1960. urtean Taberna-Berri jatetxean izan zen eta mahaikideak honako hauek izan ziren: (zutik

Guzurra dirudi ordutik hona 32 urte pasatu direnik. Batzuk oraindik igual-igual daudela komentatu dute hemen zenbaitzuk. Edozein modutan geroztik asko ez ditugu korbatarekin ikusi kalean.

ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

Herriko txokoak ezagutzeko modu polita ezagutu dugu, ERRETRATOAREKIN JOLASEAN izeneko lehiaketa.

Hona hemen parte hartzeko arauak.

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxea) egon beharko dute datorren asteke eguakotxa baino lehen.
- Asmetan dutenen artean liburu bat zozketatuko da hamabostero. Hona hemen aste honetako galdera:

- 1- Zein da argazkian agertzen den beserriaren izena.
- 2- Zein da auzo horretako ermitaren izena.

Pista txiki bat: Auzo horretako patroia otsailean ospatzen da.



Erantzuna:

• Izen-abizenak

• Helbidea:

• Tfnoa:



■ Domekan nesken liga txapelketa bukatu zen. Zumaiaiko taldearen aurka jokatu zuten. Larogeitamar minutuak pasatuta gero, bana egin zuten. Horrela gure neskek 9. postua lortu dute. Ez dago txarto.

■ UDAko mutilak Trintxerperen kontra 1 eta 0eko emaitza lortu zuten. Justu samar, baina partidua ona eginda.

■ Domekan eguargiko 12etan, Alex eta Mikeli, Uxarren homenaldia egingo zaie.

Eskolarteko kirola

Aretxabaletako eta Eskoriatzako ikastetxeen artean (Kurtzebarri, Almen eta Luis Eceiza) kirol ugari egiten ari da gaztetxoekin azken hiru urte hauetan. 3.mailatik 6.mailarteko neska-mutikoei zapatuero parte hartzen dute. Aurten 24 talde dabilta jolasten eta guztira 8 kirol

egiten dituzte (pilota, igeriketa, saskibaloia, eskubaloia, futbito, futbola atletismoa eta mendia). Guzti hau aurrera eramateko martizenero elkartzen dira ikastetxeetako ordezkariak eta Aretxabaletako Udaletxeak jarritako koordinatzaile

lea. Datu teknikoak alde batera utzita beste arazo inportanteagoak kezkatzen dituzte: "Umeak, umeak direnez, jolastu egin behar dute, eta kirol hauek jolas bezela onartzeak inportantzia handia dauka edade hauetan".

KOMIKIA

Gaizka Larrinaga



14

ZAPATUA

• Zinea: "Besame antes de morir" gaueko 10etan.

15

DOMEKA

• Zaraia mendi taldearen irteera: Artzanburura.

• Goizeko 9etan: "Aretxabaleta Ezagutzen" Murruxiko, Beinke eta Kurtzebarri Eskolak antolatuta.

• Zikloturista taldearen ibilbidea: Aretxabaleta - Elgoibar - San Lorenzo (64 km)

* Zinea: " La pequeña picara " 4,30etan

eta " Besame antes de morir " 7etan.

19

EGUENA

• 19tik 22ra Murruxiko mendizale elkartearen akanpada Alabitan.

• Zinea: 4,30etan eta 7etan " No me mientas que no te creo " filmea.

• 19tik 22ra Ortzadarren irteera Kanpetzora.

21

ZAPATUA

• Uratz-Alde elkartearen eguna.

• Zinea: " Fosa comun " gaueko 10etan.

22

DOMEKA

• Murruxiko mendizale elkartearen akanpada Alabitan.

• Ortzadarren irteera Kanpetzora.

• Zaraia mendizale taldearen irteera: Gasteizeko Museoa ikustera

• Zikloturista taldearen ibilaldia: (Aretxabaleta - Eibar - Aretxabaleta)

• Futbol partidua: U.D.A - C.D. Touring.

• Zinea: " Postales desde el filo " 4,30etan eta " Fosa comun " 7etan.

25

EGUAZTENA

• Zaraia mendizale taldearen eskutiik: " Mendiari buruzko Mintegia " .

26

EGUENA

• Zaraia mendizale taldearen eskutik "mendiari buruzko Mintegia"

• Arratsaldeko 7,30etan, Udaletxeko Ganbaran, Beinkeren eskutik Hitzaldia ". Hizlaria: Andoni Barrena.

ARETXAZOKA

BAZKIDE FITXA

IZENA

HELBIDEA

KONTU KONRRENTEAREN ZENBAKIA

KUTXA

TELEFONOA

Aretxagazetako bazkide izan gura baduzu, bialdu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

ARETXAZOKA

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.





GARAGE

OSCAR
Basabe poligonoa
A -2 - 4
Tfnoa.: 79 98 74

ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

*MANTEKA
ANAIAK*

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak

Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 31 84

**GARAGE
" EDER "**

**Karrozeria
mekanikoa**

IBARRA S/N
Tfnoa: 791666
ARETXABALETA

Mobiliario

ARENZA


ALTZARIAK
DISENUA
APAINKETA

BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA



EROSKI

Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.
DURANA ETA ARALAR KALEAN
Tfno: 79 16 05



EGVZKIGRAF
INPRIMATEGIA

LIBURUAK • ALDIZKARIAK • LIBURUSKAK
MEREKATARITZA INPRESOAK
KATALOGOAK • BULEGO MATERIALA
Basabe Poligonoa, 4-2-7

NERIAN

Loradenda

Otalora, 14 behea
Tfnoa.: 79 70 66

" HERRASTI "

AKEITA ETXEA

CAFES
à Brasileira

Aral kalea, 7
Tfnoa. 79 32 83



Zenbaki
ASESORIA - CONSULTA

- ADI, BANAKO EMPRESARI ETA ONDASUN ELKARTE !
- BEZ ETA ERRENTAREN ZERGAREN LEGEAN ALDAKETA GARRANTZITSUAK

Basabe industrialdea
Tfnoa: 79 75 99
ARETXABALETA

PAUSOKA HAURTZAINDEGIA



OTALORA 27
ARETXABALETA

PAUSOKA HAURTZAINDEGIA S. COOPeK
1992-93 ikasturterako

MATRIKULA EPEA ZABALTZEN DU

MARTXOAK 2tik 27arte
ORDUA: Arratsaldeko 6etatik 7etara
NON: Pausoka haurtzaindegia
Otalora 27
Aretxabaleta

UDAL ESKOLAURREA



- ESKOLA IREKIA
- HEZIKETA INTEGRALA
- METODOLOGIA AKTIBO ETA SORTZAILEA
- ESKOLA EUSKALDUNA, HERRI KULTURALA ETA OHITUREN BULTZATZAILEA
- GURASOEN PARTE HARTZEARI IREKIA

1992-93 IKASTARORAKO AURRE MATRIKULA EPEA

NOIZ: martxoak 9tik - 18ra

NON: 4,30etatik - 6retara

Telefonoa: 79 58 56

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

• AMAIA C.B URDAITEGIA	79 75 42
• MARY CARMEN ZAPATA DENDA	79 59 85
• JOSTEKO OHIAL-DENDA	79 80 90
• MIREIA ARRAINDEGIA	79 31 59
• MARGOA C. B.	79 81 43
• ARAMAIO OKINDEGIA	79 64 87
• LEINTZ-ROSI	79 78 63
• ERREKABARREN FRUTATEGIA	79 96 43
• LUTXI GAZTEDENDA	79 06 56

ARETXABALETA (GIPUZKOA)